

# Soziolinguistika albistaria

43. zenbakia  
2018ko irailak 20 – urriak 16

## Soziolinguistika Klusterreko albistekak

---

### **Euskal Soziolinguistika Jardunaldiaren hamargarren edizioa Bilbon azaroaren 6an**

Soziolinguistika Klusterrak antolatzen duen urteroko zita euskal soziolinguistikaren inguruan diharduten ikerlari, teknikari eta ekintzaileen topaketarako aukera izango da. Andras Kornai aditu hungariarra Bilbon izango da hizkuntzen bizitasun digitalaren giltzarriak a...

### **"Ahozko komunikazioa irakastea. Norabide bat ahozko hizkuntzaren argitan" liburua argitaratu da**

2010etik 2014ra Tolosako ikastetxeetan egindako ikerketatik ateratako ondorioetan oinarritzen da liburu berria. Ikasgelan, ahozko hizkuntza irakatsi nahi duenari proposamena egiten zaio. Azalpen teorikoak, irakaste gomendioak eta ariketak tartekatzen dira. Josune Zabala da liburuaren egilea eta Olatz Bengoetxea koordinatzailea.

- "Ahozko komunikazioa irakastea" gidaliburuaren aurkezpena Eskola Hitzun Bila jardunaldian

### **Hizkuntza Ekologiari buruzko saioa Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu Tituluaren ikastaroan**

Irailaren 21ean egin zen, Aretxabaleta campusean, Garabide elkarteak eta Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak 4. aldiz antolatutako Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu Tituluaren aurkezpena.

### **Nafarroako egoera soziolinguistikoaren kokapena hizkuntza-lege berriaren inguruko jardunaldian**

Kontseiluak eta Udako Euskal Unibertsitateak urriaren 29an Hizkuntza Eskubideak bermatzeko legearen bidean jardunaldia antolatu zuten. Bertan parte hartu zuen Olatz Altuna Zumetak, Soziolinguistika Klusterreko teknikariak. Nafarroako egoera soziolinguistikoaren diagn...

## Ikerketak

---

### **Bretainiako inkesta soziolinguistikoa argitaratu dute.**

Bretoiera eta galoaren egoerak ulertzeko datu argigarriak jasotzen dira bertan.

### **Euskararen ikusgarritasuna helburu, EZI beka aurkeztu dute**

EZI.eus elkarteak beka baterako epea zabaldu du. Elkarre honek euskararen eta euskal kulturaren alde lan egiten du, bereziki itzulpengintzaren esparruan jardunez. Deialdia Ipar Euskal Herriko enpresei zuzentzen zaie. Urritik azaro amaiera arte izanen da proiektuak au...

## Jardunaldiak, hitzaldiak eta ikastaroak

---

### **Abian da Euskal Etnopoloaren 2018-2019ko mintegia**

2017an emana izan zaien "Etnopolo" labelaren kariatara, 2018-2019an, Euskal kultur erakundea-k eta EHESK eskolak ahozkotasanari buruzko mintegi ziklo berri bat antolatzen dute Baionan. Lehen hitzordua urriaren 18an finkatua da, 18:00etan Baionako Euskal Museoan. Egun...

### **"AHALDUNTZEN: Hizkuntza eta generoa" jardunaldia**

Garabide elkarteak urteak daramatza hizkuntzak biziberritzeko estrategiak garatzen, hein handi batean, euskararen berreskuratzearen prozesuan ateratako ikasgaiak munduko beste hizkuntza gutxiagoak dituzten komunitateetako kideekin lantzen. Asmo horrekin antolatu iz...

### **Arnasguneen lanketan garapen jasangarriaren ikuspegia txertatu beharra ondorioztatu da "Lurraldea eta Hizkuntza" jardunaldiaren laugarren edizioan**

Arnasguneen alde egotetik arnasguneen alde egitera pasa behar dela ondorioztatu dute laugarren jardunaldi hauetan, bai eta subjektu juridiko gisa egituratzearen beharra. Horretaz gain, arnasguneen garapen jasangarriaren ikuspegitik gaian sakontzeko diziplina arteko ikerketa aplikatuko egitasmo berriak garatzea ezinbestekoa dela azpimarratu dute, bai eta Lurralde Antolaketarako Euskararen Plan Sektoriala garatzeko premia berretsi ere.

### **"Helduen Euskalduntze Alfabetatzea aurrera begira" topaketa**

Azaroaren 9 eta 10ean "Helduen Euskalduntze Alfabetatzea aurrera begira. Glotodidaktikako VI. Topaketa" egingo dugu Bilbon. Dagoeneko izena emateko epea zabalik dago.

### **Idazmen-ikastaroa irakasleentzat: Hizkuntzaren baliabideak eta estrategiak**

Helburu orokorra: testu egoki eta zuzenak ekoizteko baliabideak eta estrategiak ezagutzea eta horiek erabiltzen trebatzea, idatzizko testuetan.

## A Deputación da Coruña organiza as xornadas “Malas linguas”

Dirixidas principalmente ás persoas que traballan no ámbito da normalización lingüística e das políticas públicas, as xornadas Malas Linguas centraranse en deseñar estratexias para activar os/as falantes do século XXI. O programa estrutúrase en catro sesións...

## Cities, Arts and Experiences of the Word (Barcelona, 2018/11/20-21)

The world is a conversation, not the object of our conversation. Those were Tim Ingold’s words from two years ago during his lecture at the Center of Contemporary Culture of Barcelona, the venue where Linguapax now celebrates its annual international conference...

## Vídeos de les Jornades de sociolingüística d’Alcoi 2018

Vídeo de la conferència de Vaillancourt: «Bill 101 is 40: the status of French in Québec»

## Liburuak eta artikulu zientifikoak<sup>1</sup>

---

### Euskara batuaren eskuliburua (EBE) aurkeztu dute

Duela lau urte Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak eginiko mandatu baten emaitza da Euskara Batuaren Eskuliburu hau. Esan ziguten jaso genitzala “Euskaltzaindiak emanak dituen arauak, gomendioak eta irizpenak (morfologiakoak, sintaxikoak, ortografiakoak, onomastikakoak...

### El Centre de Recerca en Sociolingüística i Comunicació estrena butlletí amb el suport de Política Lingüística

El Centre de Recerca en Sociolingüística i Comunicació de la Universitat de Barcelona (CUSC-UB) estrena el butlletí mensual Apunts de sociolingüística i política lingüística, una nova eina de divulgació de dades sociolingüístiques que té el suport de la ...

### Enregistering authenticity in language revitalisation.

Bodó, C. and Fazakas, N. (2018), Enregistering authenticity in language revitalisation. J Sociolinguistics. . doi: 10.1111/josl.12308

<sup>1</sup>Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean **HABE Liburutegira** ([liburutegi@habe.eus](mailto:liburutegi@habe.eus)), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.

## Bestelako albisteak

---

### **Euskara Batuaren Adierazpena sinatu dute 36 erakundek**

Sinatzaileek euskara batuaren sorrera bultzatu zuten printzipioak berresten dituztela dio lehen puntuak. Euskaltzaindia joan den mende erdian euskalgintzan nagusitzen ari ziren hizkuntza planteamendu berrietan partaide izan dela jasotzen du bigarrenak. Hirugarrenak, ...

### **Europa mailako eleaniztasun agentzia baten sorrera sustatzen dute zenbait errejiotako parlamentuek**

La Conferencia de Asambleas Legislativas Regionales Europeas (CALRE) propone, para promover la diversidad lingüística europea, que se cree una agencia europea para el multilingüismo, que vele por la protección de todas las lenguas europeas y por los derechos ling...



BABESLEA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

BAZKIDE PARTAIDEA

